



IKUS-ENTZUNEZKOEN EMAKUMEEN ELKARTEAK DONOSTIAKO ZINEMALDIAREKIN BILDU DIRA

Sektoreko profesionalen elkarteek neurri zehatzak eskatu dituzte benetako berdintasuna eta aniztasuna lortzeko, bai Donostian, bai Estatuko gainerako zinemaldietan

- **Ikus-entzunezko profesionalen elkarte feministek etengabeko elkarrizketa adostu dute Zinemaldiarekin, benetako ekitatera iristeko.**
- **Zinemaldian emakumezko zuzendarien batez besteko presentzia %29koa da, ICAAk 2025ean ekoizpenetan 50/50era iristeko zuen helburutik oso urrun.**
- **Ekintza-neurri positiborik gabe, ikus-entzunezko sektorean benetako berdintasuna ez da 2094ra arte iritsiko.**

Donostia, 2021eko irailaren 24a. Ikus-entzunezkoen arloko profesionalak **SSIFFek** berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko benetako eraldaketa lortzeko hainbat ekintza har ditzala eskatu dute gaur, **Donostiako Zinemaldiaren antolatzaileekin egindako lan-mahai batean**. Zinemaldiak berak eta (H)emen -Euskal Herriko ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeen elkarteak- bultzatutako topaketan, 2025ean 50/50 GTIko (Ikus-entzunezkoen arloko berdintasunaren aldeko lurralde arteko lan-taldeko) ordezkariak parte hartu dute– AAMMA (Andaluzia), AMMA (Murtzia), Dona i Cinema (Comunitat Valenciana), Dones Visuals (Catalunya), (H)emen (Euskal Herria), MIA (Mujeres en la Industria de la Animación)– CIMArekin batera (Asociación de Mujeres Cineastas y de Medios Audiovisuales). Horiek guztiek 2.000 emakume profesional baino gehiagoko taldea osatzen dute.

Foro hau hasiera puntu bat izan da Zinemaldiak eta elkarteek hiru hilean behin egingo dituzten bileretan zehaztu beharreko neurri sorta zabal bati ekiteko.

Zuzendarien parte-hartzea Zinemaldian

Donostiako Zinemaldiaren 69. edizioan, zuzendarien batez besteko presentzia %29koa da. Kopuru horrek, berez, gutxiagiko etrepresentazioari buruz hitz egiten du, baita 2018an jaialdiak sinatutako parekotasun-gutunean planteatutako ekintzak nahikoak izan ez direla adierzten du ere. Beraz, ekintza positiboko neurriak beharrezkoak dira egiturazko desberdintasuna betikotzen duen balantza orekatzeko eta, ICAAren helburuarekin bat etorriz, 2025ean ikus-entzunezko ekoizpenetan 50/50era iristeko. Ikus-entzunezkoen industriako erakunde, entitate eta, oro har, eragileen katea osatzen duten zinemaldien ardura da neurri erabakigarriak ezartzea benetako ekitatera lehenbailehen iristeko.

Honen harira, Zinemaldiak Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan; Nest, Ikusmira Berriak egoitza-programan; eta New Directors sailean, **emakumeek zuzendutako filmen parte-hartzea handitzeko eta babesteko konpromisoa hartu du.** Abiapuntu bat da, nahiz eta asmo handiagoko ekintzen diseinua beharko duen benetan ekitatiboa dde presentzia bat lortzeko.

Gaur egun, datuek agerian uzten dute, taldeetako rol profesional guztiak kontuan hartzen baditugu, **emakumeek ikus-entzunezkoen sektorean duten presentziaren urteko igoera %1ekoa baino ez dela.** Beraz, 2044ra arte itxaron beharko litzateke % 50eko partaidetzara iristeko. **Joera hori nabarmen handitzen da kolektibo gutxituetako profesionalentzat.** Horrela, eta erritmo horretan, **benetako ekitatea ez litzateke lortuko 2094 urtera arte,** eta, ondorioz, zinemagileen belaunaldiak galduko lirateke, eta gizarte osoa ordezkatzeko ez duen ikus-entzunezko batekin jarraituko genuke, desberdintasunak betikotuz.

Ordezkaritasunaren eta ordezkariaren azterketa

Aldi berean, **Zinemaldiak 2019tik egiten duen genero-identifikazioari buruzko txostena gehitzea adostu dute.** Datorren urtetik aurrera, gutxiegi ordezkaturako rol kategoriak aztertuko ditu, hala nola soinu zuzendaritza, konpromiso berriak gehitzeaz gain. **Etorkizunean eztabaidatu beharreko konpromisoen artean,** imajinario kolektiboaren sorrerarekin lotutakoak daude, non zinemaldiek erantzukizun handia duten hautatzaile eta erakusle gisa. Imajinario hori estereotiporik gabekoa izan dadin eta gure gizarte aniztasunez ordezkari dezan, elkarrekin zinemaldi honi eta guztiei eskatzen diete, **gizonen eta emakumeen arteko batzorde paritarioak izateaz gain, beren osieran ahalik eta aniztasun handiena izan dezatela.**

Narratibetan estereotipo eta joera matxistak eta arrazistak detektatzeko, borondate onez egitea ez dela nahikoa gogorarazi dute GTIko elkarteek; horregatik, **genero-ikuspegian, interseksionalitatean eta zinematografian espezializatuta dauden pertsonen esperientzia izatea eskatzen dute.** Gainera, ezinbestekoa da filmaren edukiaren irudikapenari buruzko azterketak eta azterlanak bultzatzea, bai kuantitatiboki (emakumezko protagonisten kopurua, adibidez), bai kualitatiboki

(estereotipo sozialak, generokoak, klasekoak, jatorrikoak, etab.), zineman emakumeak aniztasun osoan nola irudikatzen diren erakusten duen argazki bat izateko.

Azkenik, Zinemaldiaren "generoa identifikatzeko" txostenak, urtero ebaluatuko du genero, aniztasun eta ekitateko neurri guztien betetze-maila.

Emakumezkoen interpretazio sariak

Era berean, lan-mahai honetan **emakumeen eta gizonen interpretazio sariak** bueltatu daitezela eskatu dute elkarteek. Gaur egungo nazioarteko testuinguruan, aktoreek rol protagonistetan duten parte-hartzeari buruzko datuak oso urrun daude paritarioak izatetik. Gainera, emakumezko pertsonaien garrantzia eta sakontasuna, tamalez, oraindik oso urrun dago gizonezko pertsonaienetik. Horri gehitzen badiogu emakume gidolariak eta zuzendariak idatzi eta zuzendutako filmen kopuru handi batek emakumezko protagonista bat dutela, erabaki horrek eragina izan dezake sortzaileek zuzendutako filmen errekonozimenduan. Testuinguru horretan, emakumeen interpretazio onenaren saria kentzeak egiturazko desberdintasuna indartzen du.

Ohorezko sariak

GTIko elkarteek positibotzat jotzen dute zinemaldiak ohorezko sariak hautatzeko irizpideari buruz proposatutako berrikuspen-borondatea, baina ez dute nahikotzat jotzen. **Zinemaldien esparru etikoak arduratsua izan behar du sozialki, eta indarkeriarik gabeko gizarte bati lagundu behar dio.** Zinemaldiek ez dute bakarrik irudimena sortzen programatutako filmen bidez, baita emandako sarien eta errekonozimenduen bidez ere, oihartzun mediatiko eta soziala dutelako. Horregatik, esparru etikoa zabaldu behar da ohorezko sarietan genero-ikuspegia sar dadin.

Jaialdi guztietarako eskaerak

Gaur Donostiako lan-mahaira helarazitako eskaera guztiak estatuko zinemaldiei helaraziko dizkie GTIk. Ikus-entzunezkoen benetako eraldaketarako, modu orokorrean aplikatu behar dira, eta horiek babesten dituzten erakunde guztiek kontuan hartu behar dituzte. Ildo horretan, zinemaldiak elkarteekin elkarriketa etengabea ezartzea hitzartu du, Pentsamendua eta Eztabaida arloan, aniztasunaren inklusioa bezalako gaiak jorratzeko eta mailaz maila eta batera aurrera egiteko. Zinemaldiak eta elkarteek hiru hilean behin egingo dituzte bilerak.

Eskaera guzti hauek **estatuko hainbat lurralde ordezkatzeko dituzten zinemaren eta ikus-entzunezkoen elkarte feministek egin dituzte, guztira 2.000 profesional elkartekide inguru.** Besteak beste, ekoizleak, zuzendariak, gidolariak, aktoreak, animatzaileak, teknikariak, kritikariak eta sektoreko hainbat alorretako adituak.

- **GTI Grupo de Trabajo Interterritorial de Igualdad en el Audiovisual 50/50 en 2025:**

- AAMMA, Asociación Andaluza de Mujeres de los Medios Audiovisuales.
- AMMA, Asociación de Mujeres de Medios Audiovisuales de Murcia.
- DONA I CINEMA, Associació de dones del País Valencià.
- DONES VISUALS, Associació Promotora de Dones Cineastes i de Mitjans Audiovisuals de Catalunya.
- HEMEN, Asociación de Mujeres del Audiovisual del País Vasco.
- MIA, Asociación de Mujeres de la Industria de la Animación.

Gaur, Espainiako hainbat lurraldetako erakusketa eta zinemaldiek bat egin dute eskaera horiekin, TRAMArekin (Coordinadora de Muestras y Festivales de Cine, Vídeo y Multimedia Realizados por Mujeres) bidez:

- **TRAMA. Coordinadora de Muestras y Festivales de Cine, Vídeo y Multimedia Realizados por Mujeres:**

-

- Muestra de Cine y Mujeres de Pamplona.
- Mostra Internacional de Films de Dones, Barcelona.
- Muestra Internacional de Cine realizado por Mujeres, Zaragoza.
- Muestra Internacional de Cine Realizado por Mujeres.
- Muestra de cine dirigido por mujeres, Bilbao.
- Festival Dona i Cinema, Valencia.
- GENERAMMA. Festival de Cine Realizado por Mujeres, Chiclana, Cádiz.

PRENTSA HARREMANA

Eguzkiñe Aranzibia

komunikazioa@hemen.eus